

Donostia, 2019ko irailaren 23a

UDALBATZAREN IDAZKARIARI

DONOSTIAKO BARRUTIEN ARAUDI ORGANIKOA ALDATZEKO ARAUDI PROPOSAMENA

Aitzole Araneta Zinkunegi Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikulua oinarri, DONOSTIAKO BARRUTIEN ARAUDI ORGANIKOA ALDATZEKO ARAUDI PROPOSAMEN hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Irailaren 12an, Bozeramaileen Batzardeak proposamen bat aurkeztu zuen Donostiako udal taldeek Ekialdeko Barrutiaren Udal Batzarrean duten ordezkariak berritze aldera. Proposamen hori egiteko, joan den 201ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan talde bakoitzak Donostian lortutako emaitza orokorrak hartu ziren kontuan. Hala, bada, Elkarrekin Donostia taldeak barrutietako udal batzarren osaera arautzeko proposamen bat aurkeztu nahi du, udal taldeek barruti bakoitzean lortutako botoen arabera ordezkariak izan dezaten dagokion udal batzarrean.

Horiek hala direla, hau da Elkarrekin Donostia taldearen

AKORDIOA:

- Bidezkoztat jotzea Donostiako Barrutien Araudi Organikoa aldatzea, udal talde bakoitzaren ordezkariak politikoa dagokion barrutian lortutako hauteskunde emaitzen arabera izan dadin.
- Ondorioz, araudi proposamen hau izapidetzea eta aurretiko kontsulta publikoa egitea, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 115. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Sinatua: Aitzole Araneta

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea